

Joselu Cereceda

Sindikalista

Egia, askoren erregarria

■ Aspaldi honetan behin baino gehiagotan esan dugun legez, Euskal Herrian egoera berri eta historiko baten aurrean gaude. Eta —hauek denborak, hauek ohiturak!— Ezker Abertzale eta Abertzaletasun ororen aurkako erasoak inoiz baino handiagoak izan direnean. Zigor justua euren gaiztakeria madarikatuarentzat.

Bartzelonako Adierazpena, Lizarrako Akordioa... eta errematatzeko, ETAK egindako su-eten mugagabea. Zelako zoramena, iskanbila, urduritasuna!... espainolista amorratuen barnean. Ez zuten espero holakorik... are gutxiago, abertzaleen batasuna Euskal Herrian dagoen gatazka, gaurko marko juridiko politikoaren antzutasuna definitzeko eta bere aldaketa eskatzeko orduan.

Egunotan, espainolista amorratuen adierazpenak entzuterakoan, gogora etorri zait etengabe Espartero jeneralaren irudia, zaldi baten gainean, ezpata eskuan eta euskaldunen aurka bereak eta bost esanez, aginduriko Foruak ezabatze prest. *Por el imperio hacia Dios... sabe dónde.*

Bene-benetan beldurtu dituen, Euskal Herrian dagoen gehiengo abertzalea dela ziurtatzea (bazekiten baina...) eta gehiengo honen eskaera irmoa. Espainiako Presidenteak, Anoetan, suabe-suabe esan zuen: «Bakea Konstituzioan sartzen da. Ez dago besterik». Niri, beste gauza bat baino gehiago, guda adierazpen bat iruditu zitzaidan.

Gauzak horrela, Alderdi Egunean, Arzalluzek zera esan zuen: «Bakea Konstituzioan sartuko da, baina euskaldunak ez». Hori esateagatik, hamaika astakeria entzun izan behar zituen. Jauregik, Arzalluzi deitu zion txoriburu eta ardurabako,

«libertateen zeru babesle diren Konstituzioa eta Estatutua» (to ahoberokeria!) zalantza ipintzeagatik. Euskaldunok, benetako Libertatea (maiuskulaz, bai) zer den ez dakigu. Bage-nekien jakin... baina Nafarroa izeneko Estatu baten barruan geundenean. Geroztik, orduko espainolista amorratuak gure Burujabetza lapurtzen hasi ziren gaurko egoera tamalgarrira ailegatu arte. Edozein kasutan, Libertatea herrien nahia betez babesten da. Emaiozue hitza Euskal Herriari, entzun eta bete ezazue hitz hori. Horrela izango zarete libertateen babesleak edo sekula ez, Jau-regi jauna.

Gainera, marko juridiko politikoaren aldaketa aldarrikatzen dugunok, irainak entzun behar. «Autodeterminazio Eskubidea onartuz gero, Euskal Herrian garbiketa etnikoa egingo litzateke». Hamaika ikusteko eta entzuteko jaiok gara! Batzuen aburuz, horrelakoak gara abertzaleok, hiltzaileak, basatiak, intoleranteak... Ai ama, jakin, ondo dakigu non dagoen benetako intolerantzia! Gure etorkizunaren jabe izan gura dugu euskara mintzatuz. Eta gure nahi zuzen hau errespetatu dadila. Hori gertatuz gero, bake ederrean biziko ginatete mundu guztia-ekin.

Baina espainolista amorratuek esandakoak, gorago esan legez, ezkutuan guda adierazpenak dira. Adibidez, egu-

tan entzun dugu abertzaleen hiru aurreitzi hauek onartezinak direla:

— Konstituzioa eta Estatutua agortuak direla. Zer esan gura du horrek? Edo ton-

toak baino tontoagoak garela... edo konformatu behar dugula. Agintzen duenak agintzen du. Eta kitto.

— Aldaketa konstituzionala eskatzen dugunok gehiengo soziala garela. Onartezina. Gezurra delako? Edo ez dakigu zenbatzen... edo gehiengo soziala zenbatzeko haiek erabakitzen dute nortzuk kontutan hartu behar.

— Estatu Espainolak eta Frantsesak eus-

kaldunen nahia bete behar dutela. Ezta pentsatu ere! Aldeano hauek! Jokoz kanpo gabilta, aldea globala eraikitzen gauden egoeran! Ez gara modernoak. Gainera, Europako autonomiarik handienaren jabeak izanik (!)?!

Orain, ahalik eta jende gehienek bozka dezala eskatzen hasi dira, «gizartearen benetako nahia ikus dadin», hots, abertzaleek lorturiko botoak gehiengo argi bat ez bada, erreferendum baten balioa izan beza. Datorren hauteskundeetan, gizarteak sekulako intoxikazioa sofrituko du, jendea beldurtzeko asmoz. «Abertzaleen ultrakeria gogorrak, gizarte zatiketa, gizakiak elkarren artean hiltzea eragin dezake». Jauregik esana. Tamalez, euskaldunok badakigu muturreko nazionalismo batek eragin dezakeen sofrimendua, espainiar eta frantziar nazionalismoak

ondo baino hobeto ezagutzen ditugulako. A! Nork asmatu zuen *el día de la raza* famatu hori? Guk, euskaldunok, ez.

Bizi dugun egoera historiko honetan ideologia desberdineko euskaldunok bildu gara, gure Burujabetasuna defenditzeko —Herrik, bere lege, etxek, bere aztura—. Utz diezaiogun gure zoramen gozo honi aurrera eramanez gaitzala. Mogelek zioen legez: «Bakoitza bere zoroak bizi».

Sartu garen bidaia hau zaila izango da, luzea, gogorra. Haiek, beren zoramen partikularra daukate, eta konponbidea atzeratzen saiatuko gara, zeren ez baitute marko juridikoa aldatzeko inolako asmorik —*Gero dioenak, bego dio*—. Bazekien gure Axularrek, bai! Bidaia honetan zuhur ibili beharko dugu, zeren hamaika amarrurekin topo egingo baitugu —*Non fia, han gal*—. Zuhur eta irmo. Gure artean kontraesan ugari izango ditugu, humanoak eta ideologia desberdinekoak garelako. Baina gure helburuak lortu gura baditugu, elkarri lagundu behar —*Bidaide, gogaide*—. Haiek, badakite, jakin, guk arrazoia daukagula. Horregatik, erreta daude —*Egia, askoren erregarria*—. Hori jakinik, gehiengo soziala garela kontuan hartuz, egun batean ikusiko, sentituko dugu Euskal Herria bere etorkizunaren jabe eta gure Euskara aske, eder, pozik, izarretaraino hegaz. Gure arbasoek zioten legez: «Orok diotena, edo da, edo izanen da». Honen guztia alde, edozein portaera zilegi da, triunfalismoa izan ezik. Pilota, gure teilatuan dago ere bai. Lan, lan eta lan egiteko prest egon behar dugu. Irabazi dugu (Monzonek zioen legez: «Horrela esan behar da prozesua irrebersible denean»). Zorionak abertzale guztiei, eta euskal presoei, besarkada handi bat. Aurrera! ■

Bizi dugun egoera historiko honetan ideologia desberdineko euskaldunok bildu gara, gure Burujabetasuna defenditzeko

Maria Jose Urruzola

Mujeres para la Europa del s.XXI taldeko kidea

Gogoeta feministak su-etenaren gainean

■ Erakunde politiko feministok urte asko daramatzagu Euskal Herria eraikitzen emakumeen eta gizonen lanarekin eta, garapen pertsonalaren zein kolektiboaren oinarria diren aldetik, askatasuna eta bizi-baldintza duinak zein justuak lortzeko borrokan ari diren gizarte taldeen erabakitutasunarekin eta jarduerarekin.

Beti esan dugu indarkeria ez dela gatazkak konpontzeko bidea, eta, horregatik, egokia iruditzen zaigu ETAK hartutako erabakia, su-etena edo desarma.

Mujeres para la Europa del s.XXI kandidatura, gure pentsamoldearekin bat etorriz, aldaketa honek dakartzen posibilitateetan pentsatzen ari da. Izan ere, litekeena da Euskal Herriko emakumeen eta gizonen askatasunaren alde borrokatzen ari diren gizarte kolektiboek eta, beraz, erakunde feminista autonomoek esparru politiko propioa izatea, eta, horretara, negoziazio mahaietan planteatu ahal izatea

emakumeon egoera zehatzak eta errealek, Euskal Herriko emakumeen autodeterminazio eskubidea, oraindik ere lortu gabe baitugu, eta biztanleen erdian oinarritako arazo konponketan esku hartu ahal izatea. Berriz ere gure historiaren protagonista izaten ahalegintzen ari gara, gure interesak besteen interesen mende utzi gabe.

Su-etenaren emaitza hainbat faktorek baldintzatuko dute; honako hauek erabakigarriak izango dira: Gobernuko alderdi politikoaren benetako bake-nahiak; gizarte arazoak kudeatzeko ohi-ko trakestasun politikoa gaitzetea; propo-

Une historikoa izan liteke gizonen kulturako ohiko nagusikeriazko irizpideak gaitzetea eta emakumeak

samen politiko berriei erantzutean, PP eta PSOE jarrera politikoak aldatzeko prest egotea; baita borroka armatua gizarte gatazka konpontzeko tresnatzat hartu dutenen pazientzia iraultzailea ere. Uste dugu borroka armatuan su-etena aldarrikatzea, berez, eta azken emaitzak edozein izanda ere, aukera ona izan daitekeela bestelako ikuspegiekin pentsatzen hasteko.

Aukera egokia izan liteke amets egiteko, irudikatzen posible dela politika egiteko beste molde batzuk izatea, indar fisikoa, gaur egun armak, alde batera utziz, hala nola egunotan ordezkari politiko batzuei

entzun dizkiegun diskurtso indarkeriaz horren beteak baztertuz. Une historikoa izan liteke gizonen kulturako ohiko nagusikeriazko irizpideak gaitzetea eta emakumeak existitu ahal izateko, bai subjektu politiko gisa, baita edozein negoziazio politikoren onuradun gisa ere.

Erakunde feministok betiere kokatu gaituzten esparru politikotik egungo egoera politikoari erreparatzean, batzuk konfaturatzen gara, alde batetik, zer-nolako arazoak sortu dizkigun emakumeoi gobernuen egiturazko indarkeriak, eta, bestetik, indarkeria armatuak ez digula inolako konponbiderik eskaintzen. Hala ere, aukera hau baliatu nahi dugu pentsamoldeak aldatzeko, ausartu ere ausartzen baidakara pentsatzen posible dela gizarte eredu berri bat eratzea giza-garapena irizpide nagusitzat hartuz. ■